

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 371/2018 Foru Agindua, abenduaren 27koa, zeinaren bidez Uribarri Gaubeako Administrazio Batzarrari 2018ko abenduaren 31ra arte luzatzen baitzaio epea, energia efizientziarako ekintzak eta biomasaren aprobetxamendu energetikoa bultzatzeko laguntza lerroaren esparruan

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 21eko 91/2017 Erabakiaren bidez, onarpena eman zitzaion eraginkortasun energetikoko ekintzak sustatzera eta biomasaren aprobetxamendu energetikoa bultzatzera bideratuta dagoen laguntza lerroaren 2017ko deialdiari. Uztailaren 26ko 454/2017 Erabakiaren bidez ebatzi zen laguntzen esleipena.

2017. urteari dagozkion gastuak azaroaren 24an gauzatu behar ziren, eta 2018. urteari dagozkionak uztailaren 13an.

2018. urteko gastuak ordaintzeko eskatutako agiriak 2018ko uztailaren 20rako aurkeztu behar ziren.

Aipatutako erabakian, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuari ahalmena eman zitzaion erabaki hau garatu eta aplikatzeko eman beharreko xedapenak eman ditzan.

Uribarri Gaubeako Administrazio Batzarrak 19.236,32 euroko dirulaguntza esleituta zeukan, 2018. urterako.

2018ko ekainaren 26an, Uribarri Gaubeako Administrazio Batzarrak idazki bat bidali zuen, eskatzeko 2018ko abenduaren 31ra arte luzatu zedila "BTko instalazio elektrikoa berritu eta eguneratzea, argiteria publikorako" proiektuko obrak gauzatzeko epea. Foru planeko beste dirulaguntza bat esleitzeke zegoenez, ezin zituen obrak gauzatu, aurrekontu falta zela eta.

Beraz, erabaki da onartzea Uribarri Gaubeako Administrazio Batzarrak inbertsioak egin eta diruz lagundutako jarduna justifikatzeko epea 2018ko abenduaren 31 arte luzatzeko epea kanpo egindako eskaera.

Horregatik guztiagatik, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua esleitzen dizkidan ahalmenak erabiliz, eta hasieran aipatutako erabakian jasotako eskuordetza baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Uribarri Gaubeako Administrazio Batzarrari 2018ko abenduaren 31ra arte luza dakiola epea, energia efizientziarako ekintzak eta biomasaren aprobetxamendu energetikoa bultzatzeko laguntzen lerro bateko jardun diruz lagundua gauzatzeko eta egiaztagiriak aurkezteko.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2018ko abenduaren 27a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

AMAIA BARREDO MARTÍN